

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **Zaldi azienda sorta zenbaiten enkante publiko bidezko besterentzea, urriaren 6ko 299/2016 Foru Agindu bidez onartu ondoren**

Maiatzaren 20ko 990/2016 Ebazpenaren bidez, nekazaritza zuzendariak adierazi zuen 31/2014 zehapen espedientean animalien ongizateari buruz hartutako kautelazko neurriak iraungi zirela eta kautelazko neurri horien xede izandako zaldi aziendak enkante publiko bidez besterentzeko prozedura hasteko xedatu zuen, zaldi azienda horien jaberik ez zegoelako.

Animalien osasunari buruzko behin-behineko neurri batzuk hartu ziren 31/2014 zehapen espedientean, baina neurri horiek hartzea eragin zuen arriskua desagertu denez 990/2016 Ebazpenak erreferentziatzko kautelazko neurria iraungitzea erabaki du, bahitutako animalien egoera oso ona baita eta hartutako neurria ekonomiaren aurkakoa, izan ere, orain arte animalia horiek mantentzeko 74.902,71 euro gastatu dira eta animalia guztien tasazioko balioa baino ia bederatzi aldiz gehiago da hori, tasazioko balioa 8.400 euro baita.

Erreferentziatzko kautelazko neurria iraungi den arren, zaldi azienda hauen titulartasunari buruzko konplexutasun handia dago eta animalia arduraduna hartu daiteke titulartzat, animalia horrekiko duen titulu juridikoa dena delakoa izan arren, baina zehapen espedientea ireki zaiona eta zaldiak bahitu zitzaizkiona animaliak zeuzkan pertsona zen arren, ez zen jabea, beraz, Administrazio honek animalien jabea aurkitzeko prozedura hasi zuen, legezko jabeari itzuli ahal izateko.

Hori dela eta, errekerimenduak bidali zitzaizkien nahiz kautelazko neurria hartu zenean animaliak zituen pertsonari nahiz balizko titularrei, administrazioaren zenbat erregistrotan hala agertzen zirelako, erreferentziatzko animalien titularrak zirela kreditatu zezaten.

Jarduera horiek ez zuten emaitzarik eman, ondorioz, Estatuko Aldizkari Ofizialean (102. zk., 2016ko apirilak 28) iragarki bat argitaratu zen zaldi azienda horien zerrendarekin, titulartasuna errebindikatzen zuen interesaturen bat agertzen ote zen ikusteko. Baina administrazioaren jardura honek ere ez zuen emaitzarik eman.

Gauzak horrela, Administrazio honek ikusi du 31/2014 zehapen espedientean animalien osasunari buruz hartutako kautelazko neurria iraungi dela, gaur egun animalien egoera oso ona denez neurri hori hartzeko zergatia bete delako, baina animalien legezko jabeak zein diren ez dakielara.

Era berean, Foru Administrazio honen zaintzapean dauden animalia hauek mantentzea gastu handia da, zehatz esateko, orain arte egindako gastua beren tasazio balioa baino bederatzi aldiz handiagoa da.

Honi dagokionez, Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 14. artikuluan esaten da bazter utzitako animaliatzat joko dela jatorriaren eta jabearen identifikaziorik ez daramana eta bakarrik dabilena, bai eta, identifikaziorik eraman arren, jabeak edo arduradunak galdu egin dela jakinarazi ez duena ere.

Jarraian, 6/1993 Lege horren 16. artikulua dio identifikaziorik gabeko animalia bat jasota edukitzeko epea igaro ondoren inork erreklamatzeko ez badu, animalia eskuratu, jabe berri bati eman edo hil egin ahal izango dela. Era berean, animaliak identifikazioa badarama, jabeari

jakinaraziko zaio eta legeak ezarritako epean jasotzen ez badu, aurreko paragrafoan aipatutako gauza bera gertatuko da animaliarekin.

Aurreko legedian oinarritu eta aurrez aipatutako nekazaritzako zuzendariaren 990/2016 Ebazpenak erabaki zuen erreferentziako zaldi aziendak enkante publikoan besterentzeko izapideak hastea. Era berean, besterentze horren emaitza Administrazioak xede horretarako duen kontu batean sartzea erabaki zen, bere legezko jabea edo jabeak agertu zain.

Arabako Lurralde Historikoaren ondasunei buruzko 5/1998 Foru Arauren 45. artikuluko 1. zenbakiak, 46. artikuluko 5. zenbakian aipatzen denak, xedatzen du ondasun higigarrien besterentzea egiteko ohiko prozedura enkante publikoa dela. Beraz, Foru Agindu honen I. eranskinean zerrendatutako zaldi azienda sortak besterentzeko enkante publikorako deialdia egin da.

5/1998 Foru Arauren 45. artikulua arabera, 2016ko otsailaren 8an Víctor Ayensa Sierra peritu ofizialak egindako tasazioaren arabera finkatu da lizitazio mota.

Foru Agindu hau Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta Nekazaritza Sailak batera eman dute, Arabako Lurralde Historikoaren ondasunei buruzko 5/1998 Foru Arauren 46. artikulua ezarri bezala Foru Ogasun Saileko foru diputatu titularrari baitagokio, ondasunak atxikita dauden Saileko foru diputatuak proposatuta, edozein izaeratako ondasun higigarrien besterentzea xedatzea, ondasun horietako bakoitzaren balioa 5/1998 Foru Arauren 44.2 artikuluan adierazitakoaren berdina edo txikiagoa denean.

Aurreko zenbakian adierazitako Sail bakoitzari dagozkion eskumenak erabiliaz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. I. eranskinean dagoen zerrendako zaldi azienda sortak besterentzeko enkante publikoa deitzea.

Bigarrena. Onartzea Foru Agindu honen II. eranskinean dagoen enkanteko Baldintzen Agiria.

Hirugarrena. Abeltzaintza Zerbitzuak eta Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoak beharrezko izapideak egin ditzatela, zerrendatutako zaldi azienda sorten enkantea egiteko.

Laugarrena. Gaitu nekazaritzako zuzendaria, ebazpen hau formalizatzeko behar diren agiri publiko edo pribatuak sinatzeko, baita esleituko diren zaldi azienten eskualdatzea kreditatzeko agiriak ere.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 6a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*  
**ALFREDO SAEZ DE CASTILLO BELTRAN DE OTALORA**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Finantza eta aurrekontuen zuzendaria*  
**IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA**

**I. ERANSKINA**

ENKANTERA ATERAKO DIREN ZALDI AZIENDA SORTEN ZERRENDA

1.- BI ASTEME, ASTAR BAT ETA URTEBETEKO ASTAKUME BAT:

Irteerako prezioa: 350 euro

MIKROTXIPA: 250259600241184.

JAIOTZE DATA: 2006-04-08

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Ar osoa. Oso egoera ona, oro har, distira ona ilean. Izaera onekoa eta erabiltzeko arazorik gabea.



MIKROTXIPA: 724915010011318

JAIOTZE DATA: 1999/01/01 SEXUA: EMEA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Oro har, egoera onean dagoen animalia, apatx onak eta izaera ona.



MIKROTXIPA: 724915010011316  
JAIOTZE DATA: 1999/01/01 SEXUA: EMEA  
ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Oso izaera ona. Urtebeteko umea du. Apur bat deformatutako  
apatxak, baina erraz konpondu daitezkeenak.

---



MIKROTXIPA: 724915010012557  
JAIOTZE DATA: EKAINA/15 SEXUA: ARRA

---



2.- 4 PONI ETA ANTZEKOAK DITUEN SORTA

Irteerako prezioa: 650 euro


MIKROTXIPA: 724915021007082

JAIOTZE DATA:

2009/01/01 SEXUA:

EMEA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Animalia txikia, poni motakoa. Erabiltzeko oso ona eta berarekin ibiltzen diren pertsonen eskuetara erraz jartzen dena. Pio kolorea.



MIKROTXIPA: 724915021006590

JAIOTZE DATA: 2012/08/15 SEXUA: EMEA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Oro har egoera onean dagoen animalia. Apalusa kolorea. Erraz ikaritzen da, baina behin eskura eginez gero, ez du keinu txarrik egiten.



MIKROTXIPA: 977200005655107

JAIOTZE DATA: 2007/04/12 SEXUA: emea

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Behor gaztaina kolorekoa, poni-pottoka motakoa. Egoera onean oro har. Gainean oso ibilitakoa eta haurrentzako oso egokia.



MIKROTXIPA: 724915021007767

JAIOTZE DATA: 2012/11/01 SEXUA: AR OSOA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Animalia ertaina, poni motakoa. Osorik dago, beraz, kontuz ibili behar da beste abere arrekin. Egoera onean oro har eta erraz erabiltzekoa. Gaztaina kolorea.



3.- BI EME TXIKIKO SORTA

Irteerako prezioa: 700 euro

MIKROTXIPA: 724060001009877

JAIOTZE DATA: 2003/05/01 SEXUA: EMEA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Animalia txikia, 130 cm inguruko garaiera. Egoera onean oro har. Arazorik gabe gainean ibiltzeko. Gaztaina kolorekoa. Haurrentzat oso egokia.



MIKROTXIPA: 724060001011475

JAIOTZE DATA: 2010/05/20 SEXUA: EMEA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Animalia txikia, 130 cm inguruko garaiera. Egoera onean oro har. Arazorik gabe gainean ibiltzeko. Zuri-beltza, erdi albinoa. Haurrentzat oso egokia.



4.- BOST (5) BEHORREKO SORTA, mestizoak, 7-16 urte artekoak, MIKROTXIPAK 724080880006938, 724080880027271, 724915021009826, 724915021009827 eta 977200007262653

Irteerako prezioa: 500 euro

---

BANAKOAK:

5. SORTA.

Irteerako prezioa: 400 euro

JAIOTZE DATA: 2004/04/22 SEXUA: EMEA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Behor zuri-beltza, sorbaldetan orban gorrixekin. Arazorik gabe gainean ibiltzeko. Izaera ona. Gutxi gorabeherako garaiera 145-150 cm. (1)

MIKROTXIPA: 985100009982691 ARRAZA: ESPAINIAR ARRAZA GARBIA

---





6. SORTA.

Irteerako prezioa: 400 euro

JAIOTZE DATA: Gutxienez 10 urte SEXUA: AR ZIKIRATUA  
ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Zikiratutako zaldi zuri-beltza. Gainean ongi ibilitakoa, izaera oso onekoa. Erabiltzeko arazorik gabea. Gutxi gorabeherako garaiera 145-150 cm  
MIKROTXIPA: 724151010006805



7. SORTA.

Irteerako prezioa: 200 euro

JAIOTZE DATA: 1993/03/12 SEXUA: EMEA  
ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Izaera oneko animalia eta gainean ibiltzeko eta erabiltzeko arazorik gabea. Zuri-beltza, buztanaren oinarrian melanomak.  
MIKROTXIPA: 403746281D



8. SORTA.

Irteerako prezioa: 300 euro

JAIOTZE DATA: 2011/05/08 SEXUA: EMEA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Behor zuri-beltza, egoera onean oro har. Nahiko gaztea, baina gainean ibili gabea.

MIKROTXIPA: 724060001011479



9. SORTA.

Irteerako prezioa: 500 euro

JAIOTZE DATA: 2010/10/01 SEXUA: AR OSOA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Egoera onean oro har. Apur bat izutia, baina erabili daiteke. Gainean ibilitakoa, baina zaldizkoa behar du. Zuri-beltza.

MIKROTXIPA: 724915021001208 ARRAZA: ESPAINIAR ARRAZA GARBIA



10. SORTA.

Irteerako prezioa: 500 euro

JAIOTZE DATA: 2011/10/01 SEXUA: AR OSOA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Kolore interesgarriko zaldia, uherra. Hezi gabe.

Atzeko hankan burdin marka, suz eginda. Animalia oso baldintza onean dago oro har. Ikusteko oso egokia.

MIKROTXIPA: 724915021001204 ARRAZA: PORTUGALDAR ODOL GARBIA



11. SORTA.

Irteerako prezioa: 500 euro

JAIOTZE DATA: 2009/06/20 SEXUA: AR OSOA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Zaldi zuri-beltz osoa, ahoan arazoekin. Oso izaera ona. Hezitakoa eta gainean ibiltzeko arazorik gabe. (1)

MIKROTXIPA: 724010150004263 ARRAZA: ESPAINIAR ARRAZA GARBIA



12. SORTA.

Irteerako prezioa: 500 euro

JAIOTZE DATA: 2011/04/18 SEXUA: AR OSOA  
ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Garaiera oneko zaldia eta baldintza atletiko oso onetakoa. Izaera du, baina oso leiala da aldi berean. Gainean ibilitakoa. Kanela kolorea eta zuriunea. Egoera oso onean oro har. MIKROTXIPA: 724060001029166 ARRAZA: ANGLOARABIARRA



13. SORTA.

Irteerako prezioa: 300 euro

SEXUA: AR OSOA  
ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Arabiar arrazako zaldia, kanela kolorekoa. Oso deigarria. Arazorik gabe gainean ibiltzeko. Arazo txikiren bat apatxean. MIKROTXIPA: 724151010011297. ARRAZA: ARABIARRA



14. SORTA.

Irteerako prezioa: 600 euro

JAIOTZE DATA: 2009/08/15 SEXUA: AR OSOA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Gaztaina koloreko zaldia, lor abere izateko oso egokia.

Egoera fisiko oso onean. Zurda eta ilaje bikaina. Izaera bikaina, erabiltzeko oso erraza. Gainean ibiltzeko arazorik gabe, duen indarragatik izan ezik.

MIKROTXIPA: 72406000100950 ARRAZA: PERTXEROIA



15. SORTA.

Irteerako prezioa: 600 euro

JAIOTZE DATA: 2011/05/25 SEXUA: AR OSOA  
ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Zaldi ar osoa, gainean ibili gabe. Egoera onean oro har eta izaera ona. Litekeena da zikiratu behar izatea eta animalia egokiago erabiltzeko. (1)  
MIKROTXIPA: 72410150020894 ARRAZA: ESPAINIAR ARRAZA GARBIA



16. SORTA.

Irteerako prezioa: 400 euro

JAIOTZE DATA: 2004/03/01 SEXUA: Emea  
ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Gaztaina koloreko behorra. Egoera onean oro har. Gainean oso ibilia eta ongi lantzeko aukerarekin. Arrazaren ohiko garaiera. Izaera ona.  
MIKROTXIPA: 985120021542098 ARRAZA: Ingelesa



17. SORTA.

Irteerako prezioa: 400 euro

JAIOTZE DATA: 2007/04/04 SEXUA: Emea

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Behor zuri-beltza. Egoera onean oro har. Gainean ibilitakoa, baina esperientziadun zaldizkoa behar du. Gutxi gorabeherako garaiera 160 cm. Izaera ona. (1)

MIKROTXIPA: 981098100662775 ARRAZA: ESPAINIAR ARRAZA GARBIA



18. SORTA.

Irteerako prezioa: 400 euro

JAIOTZE DATA: 2009/04/01 SEXUA: EMEA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Behor zuri-beltza, egoera onean oro har. Gainean ibilitakoa. Aurreko apatxak zauri zahar bat du, baina dirudienez orain ez du herrenik.

MIKROTXIPA: 977200007562743 ARRAZA: ESPAINIAR ARRAZA GARBIA



19. SORTA.

Irteerako prezioa: 400 euro

JAIOTZE DATA: 2009/04/01 SEXUA: EMEA

ANIMALIAREN EZAUGARRIAK: Behor zuri-beltza, gorpuzkera onekoa. Gainean oso ongi ibilitakoa. Gutxi gorabeherako garaiera 160 cm

MIKROTXIPA: 977200007497586 ARRAZA: ESPAINIAR ARRAZA GARBIA





**OHARRAK:**

ZALDI AZIENDA GUZTIEK BEREN DOKUMENTAZIOAREN KOPIAK DITUZTE (DIE) eta erosiari emango zaio enkanteko prozesua amaitutakoan, animaliairen ezaugarrien amaieran (1) DUTENETAN IZAN EZIK. Hauek dira:

MIKROTXIPA	ARRAZA	ADINA
724010150004263	Espainiar arraza garbia	2009/06/20
724010150020894	Espainiar arraza garbia	2011/05/25
985100009982691	Espainiar arraza garbia	2004/04/22
981098100662775	Espainiar arraza garbia	2007/04/04

Pasaportearen eta titulartasun kartaren kopia ANCCEk (Asociación Nacional de Criadores de caballos de Pura Raza Española) ematen du eta aurrez 140 euro inguru ordaindu behar dira zaldia ugalketarako ez bada eta 300 euro ugalketarako bada.

Zaldi azienda hauek erosten dituztenei Foru Aldundiaren dokumentu bat ere emango zaie, dokumentazioa lortu ahal izateko eta ANCCEREkin harremanetan jartzen ere lagunduko zaie.

– Animalia hauek ez dute jateko balio.

– Gaur egun animaliak Bucéfalo Zaldiak Babesteko Elkartean daude, Orrion (Nafarroa), San Juan kaleko 5. zenbakian. Beraz, animaliak ikusi nahi izanez gero, aurrez hitzordua eskatu beharko da. Harremanetarako telefonoa: 653811595.

**II. ERANSKINA****ZALDI AZIENDA SORTAK ENKANTEAN SALTZEKO  
BALDINTZEN KARATULA PARTIKULARRA**

1. Enkantearen xedea:

I. eranskinean zerrendatu eta azaldutako zaldi azienda sorta zenbait besterentzea.

2. Kontratazio organoa:

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua.

3. Espedientearen zenbakia:

105418/2016

4. Irteerako tipoa:

Irteerako tipoa zaldi azienda sorta bakoitzarentzako zerrendatuta dago I. eranskinean.

5. Bermea – Fidantza:

Finkatu den lizitazio tipo handiena 3. sortarena da, 700 euro, ondorioz, ez da fidantzarik behar enkante honetarako.

6. Baldintzen agiria:

Interesdunek hauexetan dute eskuragai:

– Arabako Aldundiaren Ogasuneko Erregistro eta Informazioa (Samaniego, 14 - beheko solairua, Vitoria-Gasteiz).

– Arabako Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzua (Vicente Goikoetxea, 6 - 4. solairua, Vitoria-Gasteiz).

– Arabako Foru Aldundiaren webgunea, kontratatzailearen profila ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)).

7. Sorta bakoitzeko zaldi azienten dokumentazioa eta oharrak.

7.1. Dokumentazioa:

ZALDI AZIENDA GUZTIEK BEREN DOKUMENTAZIOAREN KOPIAK DITUZTE (DIE) eta erosleari emango zaio enkanteko prozesua amaitutakoan, animalia-eraren ezaugarrien amaieran (1) DUTENETAN IZAN EZIK. Hauek dira:

MIKROTXIPA	ARRAZA	ADINA
724010150004263	Espainiar arraza garbia	2009/06/20
724010150020894	Espainiar arraza garbia	2011/05/25
985100009982691	Espainiar arraza garbia	2004/04/22
981098100662775	Espainiar arraza garbia	2007/04/04

Pasaportearen eta titulartasun kartaren kopia ANCCEK (Asociación Nacional de Criadores de caballos de Pura Raza Española) ematen du eta aurrez 140 euro inguru ordaindu behar dira zaldia ugalketarako ez bada eta 300 euro ugalketarako bada.

Zaldi azienda hauek erosten dituztenei Foru Aldundiaren dokumentu bat ere emango zaie, dokumentazioa lortu ahal izateko eta ANCCEREkin harremanetan jartzen ere lagunduko zaie.

Gaiari buruzko kontsulta oro hemen egin daiteke:

– Arabako Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzua (Vicente Goikoetxea, 6 - 4. solairua, Vitoria-Gasteiz).

## 7.2. Oharrak:

- Animalia hauek ez dute jateko balio.
- Gaur egun animaliak Bucéfalo Zaldiak Babesteko Elkartean daude, Orrion (Nafarroa), San Juan kaleko 5. zenbakian. Beraz, animaliak ikusi nahi izanez gero, aurrez hitzordua eskatu beharko da. Harremanetarako telefonoa: 653811595.

## 8. Proposamenak eta gainerako dokumentazioa aurkezteko epea, tokia eta modua.

Kopuruak ahoz eskainiko direnez, nahiz kopuruak nahiz bateraezintasunik edo debekurik ez egotearen aitorpena eta erantzukizun aitorpena enkante egunean eta tokian aurkeztuko dira.

Lehenengo enkantea ALHAON argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 15 egun balioduneko epean egingo da 10:30ean Nekazaritza Zuzendaritzako aretoan, Vicente Goikoetxea, 6 - 4. solairuan. Aipatutako epea kontatzeko, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartzen. Era berean, epe horretako azkenengo eguna egun balioduna ez balitz, enkantea hurrengo egun baliodunean egingo da.

Lehenengo enkantearen ondoren sorta batzuk besterendu gabe geratuz gero, lehenengo enkantea egindako egun eta toki berean egingo da bigarrena 12:00etan.

Epeak zenbatzeko era hori izan arren, Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta enkante publikoaren data zehazteko moduan denean, Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko da data zehatza kontratatzailearen profilean.

Bateraezintasunik edo debekurik ez egotearen aitorpena eta erantzukizunaren aitorpena adierazitako epe eta tokian aurkeztuko dira eta behar bezala beteta entregatu behar dira horien ereduak.

## 9. Kontratazio mahaiaren eraketa.

- Finantza eta Aurrekontu zuzendaria; mahaiburua izango da.
- Kontuhartzaitza Zerbitzuaren burua; kidea
- Abeltzaintza Zerbitzuaren burua; kidea
- Nekazaritza Saileko teknikari-abokatua; kidea
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko burua; mahaiko idazkaria izango da.
- Aurreko guztiek beste pertsona bat eskuordetu dezakete.

## 10. Eskaintza ekonomikoak:

Enkantea egiten den ekitaldi publikoan aurkeztuko dira eskaintzak ahoz; enkantea goraka izango da, hau da, gehikada irekiak egingo dira.

## 11. Esleipena:

Kontratazio mahaiak ebatziko du esleipena, aurkeztutako eskaintza ekonomikorik hobere-naren alde.

## 12. Zenbatekoa ordaindu:

Esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik hasi eta 10 EGUN BALIODUNETAN esleipendunak Arabako Foru Aldundian kreditatu beharko du dagokion zenbatekoa sartu duela eta sarrera horren egiaztagiria aurkeztu beharko du Abeltzaintza Zerbitzuan; Zerbitzu hau izango da esleitutako ondasuna entregatzeko behar diren kudeaketak egingo dituen eta, dagokionean, behar den dokumentazioa ere bai.

13. Zergak eta gainerako gastuak:

Aldeek indarreko arautegian ezarritakoaren arabera ordaindu beharko dituzte zergak.

Beste gastuak esleipendunaren-eroslearen gain izango dira.

**ZALDI AZIENDA SORTA ZENBAIT ENKANTE BIDEZ BESTERENTZEKO  
BALDINTZA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA****I. XEDEA.**

Agiri honen xedea da I. eranskinean zerrendatutako zaldi azienda sorta zenbait besterentzea.

**II. ESLEIPENAREN PROZEDURA**

Besterentzea enkante publiko bidez egingo da.

Enkante publikoan parte hartzeak esan nahi du lizitatzailerak ezagutzen eta onartzen duela ondasunen egoera enkantea egiterakoan eta agiri hau erabat onartzen duela.

**III. LIZITAZIOAREN IRAGARPENA**

Enkantea ALAHOn iragarriko da, Arabako Foru Aldundiaren webguneko ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) kontratatzaileraren profilean eta beste bitarteko publiko eta pribatu batzuk ere erabili ahal izango dira.

**IV. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Prozeduran parte hartu ahal izango dute espainiar edo atzerritar pertsonal natural eta juridikoek, Kode Zibileko arauen arabera kontratatzeke gaitasuna badute, mota guztietako kontratuak egiteko gaitasuna eta, batez ere, salerosketako kontratuak egitekoa, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legeko testu bateratuaren 60. artikuluan ezarritako kontratatzeke galarazpenen bat ez badu.

**V. BERMEAK ERATZEA.**

Finkatu den lizitazio tipo handiena 3. sortarena da, 700 euro, ondorioz, ez da fidantzarik behar enkante honetarako.

**VI. LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.**

Enkante publikoaren egunean eta egingo den tokian dokumentazio hau aurkeztu beharko dute lizitatzailerak:

**A) Espainiar pertsona fisikoa:**

- Lizitatzaileraren NAN edo dokumentu parekidea.
- Adierazpena, debekurik eta bateraezintasunik ez dagoela dioena.
- Erantzukizun aitortpena.
- Proposamena aurkeztu duenaren NAN, dokumentu parekidea edo pasaporte, lizitatzailerak aurkeztu ez badu.
- Proposamena aurkeztu duenaren behar adinako ahala, proposamen hori lizitatzailerak berak aurkeztu ez badu, nahikoa izango da ahala eman duenak eta hartu duenak sinatutako agiri pribatua eta eman duenaren NAN fotokopia.

**B) Espainiar pertsona juridikoa:**

- Merkataritza Erregistroan izena emandako eraketa edo aldaketa eskritura, ezarri daitekeen merkataritzako legediaren arabera horrelakorik eska daitekeenean. Ez bada horrelakorik behar, eraketa edo aldaketa eskritura edo dokumentazioa, estatutuak edo eraketa ekintza, jarduera arautzen duten arau guztiekin, dagokion Erregistro ofizialean izena emanda, dagokionean.
- Identifikazio fiskaleko txartela.
- Adierazpena, debekurik eta bateraezintasunik ez dagoela dioena.
- Erantzukizun aitortpena.

- Enpresa Merkataritza Erregistroan izena emanda dagoenaren ziurtagiria.
- Proposamena aurkeztu duenaren NAN, dokumentu parekidea edo pasaportearen.
- Proposamena aurkeztu duenaren notario ahalordea, behar bezala askietsita.

C) Pertsona fisiko ez espainiarra:

- NANaren dokumentu parekidea edo pasaportearen.
- Adierazpena, debekurik eta bateraezintasunik ez dagoela dioena.
- Erantzukizun aitortpena.
- Proposamena aurkeztu duenaren NANaren dokumentu parekidea edo pasaportearen, lizitatzailerak aurkeztu ez badu.
- Proposamena aurkeztu duenaren askietsitako ahala, lizitatzailerak berak aurkeztu ez badu.

Nahikoa izango da ahala eman duenak eta hartu duenak sinatutako agiri pribatua eta eman duen ez espainiarraren NANaren dokumentu parekidearen edo pasaportearen fotokopia.

D) Pertsona juridiko ez espainiarra:

- Eraketa dokumentua.
- Adierazpena, debekurik eta bateraezintasunik ez dagoela dioena.
- Erantzukizun aitortpena.
- Enpresa Merkataritza Erregistroan edo beren Lege Nazionalaren dagokien Erregistroetan izena emandako ziurtagiria.
- Proposamena aurkeztu duenaren NANaren dokumentu parekidea edo pasaportearen.
- Proposamena aurkeztu duenaren askietsitako ahalordea.

## VII. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Enkantea egiten den ekitaldi publikoan aurkeztuko dira eskaintzak ahoz; enkantea goraka izango da, hau da, gehikada irekiak egingo dira.

## VIII. PROPOSAMENAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA, TOKIA ETA MODUA

Kopuruak ahoz eskainiko direnez, nahiz bateraezintasunik edo debekurik ez egotearen aitortpena nahiz erantzukizun aitortpena enkante egunean eta tokian aurkeztuko dira eta behar bezala beteta entregatuko dira bertako ereduak.

## IX. PROPOSAMENEN LOTESPENA

Aurkeztutako eskaintza guztiak lizitazio prozedura honetako betebeharreri lotzen zaizkie; hortaz, esleipendunak ez baditu betetzen esleipenak ezartzen dizkion betebeharrak, hurrengo eskaintzei esleitu ahal izango zaie ondoz ondo eta zenbatekorik handienetik txikienera.

## X. ONDASUNEN AZALPENA

Gaur egun animaliak Bucéfalo Zaldiak Babesteko Elkartean daude, Orrion (Nafarroa), San Juan kaleko 5. zenbakian. Beraz, animaliak ikusi nahi izanez gero, aurrez hitzordua eskatu beharko da. Harremanetarako telefonoa: 653811595.

## XI. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaiaren osaera karatula bereziaren 9. puntuan finkatzen da.

## XII. ENKANTEA ETA ONDASUNEN ESLEIPENA

### ENKANTEA.

Lehenengo enkantea ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 15 egun balioduneko epean egingo da 10:30ean Nekazaritza Zuzendaritzako aretoan, Vicente Goikoetxea, 6 - 4. so-lairuan. Aipatutako epea kontatzeko, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartzen. Era berean, epe horretako azken eguna egun balioduna ez balitz, enkantea hurrengo egun baliodunean egingo da.

Lehenengo enkantearen ondoren sorta batzuk besterendu gabe geratuz gero, lehenengo enkantea egindako egun eta toki berean egingo da bigarrena 12:00etan.

Epeak zenbatzeko era hori izan arren, Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta enkante publikoaren data zehazteko moduan denean, Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko da data zehatza kontratatzailearen profilean.

Lehenengo enkantea egiteko, lehenengo deialdian sorta bakoitzarentzat ezarritako lizitazio prezioetatik abiatuko da.

Lehenengo deialdiko irteera tipoak sorta bakoitzerako ezarritakoak dira eta I. eranskinean daude zerrendatuta.

Lehenengo enkantean ez da onartuko I. eranskin horretan sorta bakoitzerako finkatutako irteera tipoaz azpiko kopururik.

Bigarren enkantean ez da irteerako gutxienerako preziorik egongo lehenengo deialdian hutsik geratutako sortentzat, izan ere, Arabako Lurralde Historikoko Ondareari buruzko otsailaren 23ko 5/1998 Foru Arauaren 45.2 artikuluan ezarritako muga ez dago ezarri beharrik ondasun higigarriak besterentzeko, Foru Arau horretako 46.5 artikuluan ezartzen den bezala.

Nahiz lehenengo nahiz bigarrenengo enkantean, zenbatekoen hazkundera librea izango da.

Eskaintza ekonomikoan ez dira sartzen zergak edo Karatulako 13. atalean adierazten diren gainerako gastuak.

### ONDASUNEN ESLEIPENA

Kontratazio mahaiak preziorik altuena eskaintzen duenari esleituko dio ondasuna.

## XIII. ESLEIPENAREN JAKINARAZPENA

Kontratazio mahaiak preziorik altuena eskaintzen duenari esleituko dizkio sortak enkanteko ekitaldi publiko horretan bertan eta bertan jakinaraziko da esleipena, esleipendunek akta sinatutakoan.

## XIV. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Esleipendunek hitza ematen dute esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik hasi eta 10 EGUN BALIODUNETAN Arabako Foru Aldundian kreditatuko dutela dagokien zenbatekoa sartu dutela eta sarrera horren egiaztagiria aurkeztu beharko dute Abeltzaintza Zerbitzuan; Zerbitzu hori izango da esleitutako ondasuna entregatzeko behar diren kudeaketak egingo dituen eta, dagokionean, behar den dokumentazioa ere bai.

Behar bezala justifikatutako arrazoirik ezean, esleipendunak dirua sartzen ez badu edo bere eskaintzan atzera egiten badu, bere eskubideak galduko ditu automatikoki. Kasu horretan, Administrazioarentzat kalterik gabe izango da eta sortu ahal izan dituen kalteen ordaina eman beharko du.

Kontratazio mahaiak berariaz jakinaraziko dio aurreko ebazpena aurreko paragrafoan adierazitako egoeran dagoen esleipendunari.

Kasu bietan bigarren eskaintza onena egindakoari esleituko zaio ondasuna, horrelakorik balego.

Era berean, esleitutako ondasunen jabetza eskualdatzeari lotutako zerga betebeharrak guztiak bete beharko ditu esleipendunak.

Esleipendunen kontu joango da zerga betebeharrak oro edo prozedurari lotuta egon eta behar bezala justifikatutako gastu oro.

Era berean, esleipendunen gain izango dira esleitutako ondasunak eduki eta zaintzeagatikoko gastuak, ordainketa egin eta bost egun baliodunetik aurrera, Abeltzaintza Zerbitzuan dirua sartu izanaren ziurtagiria entregatzen ez bada. Aipatutako bost egun horiek igarotakoan, esleipenduna esleitutako ondasuna gordailutzearen ondoriozko harreman juridiko orotan subrogatuta geratuko da.



**I. EREDUA**

**BATERAEZINTASUNIK EDO DEBEKURIK EZ EGOTEAREN AITORPENA**

..... jaunak/andreak .....

Udalerrri honetan ..... eta kale honetan .....

..... bizi denak

Tfinoa. ....

Honen izenean eta ordezkatzuz .....

kalea ..... eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia ..... erantzukizunpean aitortzen dut:

Ez sinatzaileak ez ordezkatzuz duenak ez daukate inolako bateraezintasunik ez debekurik, indarreko araudiaren arabera Administrazioarekin kontratuak egitea eragozten duenik.

Ez sinatzailea ez ordezkatzuz duen pertsona juridikoaren administratzaileak ez daude ondoko lege hauek arautzen diren kasuetan: 5/2006 Legea, apirilaren 10ekoa; 53/1984 Legea, abenduaren 26koa; 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa.

Hori guztia dela eta agiri hau sinatzen du ....., 2016ko.....ren .....a.

Sin.:

NAN

**2. EREDUA**

ERANTZUKIZUN AITORPENA

..... jaunak/andreak .....

Helbide honetan ..... bizi denak  
.....

Neure edo beste honen izenean .....

Helbide honetan ..... bizi denak, Zuzenbi-  
deko ahalaren arabera, erantzukizunpean aitortzen du:

Sinatzaileak edo ordezkatzan duen entitateak egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte  
Segurantzarekiko betebeharrak.

Hori guztia dela eta agiri hau sinatzen du ....., 2016ko.....ren .....a.

Sin.:

NAN